

# Berrigara

BERGARA / Egubakoitza / 2005eko uztailaren 15a

635. zenbakia

**AUDITORIOA/** Errege Seminarioko elizan kokatu nahi du Udalak kultura auditorioa

## Auditorioaren gainean galdetu diogu kultura arloko hainbat bergararri

ENEKO AZKARATE

Bergarako Udalak 2007. urterako gertu izan nahi du Errege Seminarioko auditorioa. Kultura kalitateaz ikus eta entzun ahal izateko herriak daukan gabezia asko hitz egin da, eta badirudi, neurri batean behinik behin,

gabezia hori konpondu egingo dutela bai Seminarioko auditorioak eta baita Zabalotegiko areto berrituak.

Biak abian jarri nahi ditu Udalak, baina oraingoz ez dago ez proiekturik ezta aurrekonturik ere. Hori bai, Gipuzkoako Foru Aldundiak dirulaguntza

eman dio Udalarri agintaldi honetarako kultura ekipamenduetarako. Oraingoz, Donostiako Ereite enpresari agindu zaio bi aretoendako txostenak egitea; irailerako egongo dira. Bitartean, kultura arloko hainbat herritarri galdetu diogu Errege Seminarioren gainean.



ENEKO AZKARATE

Iritzia eman digutenek nabarmendu dituzte Seminarioaren mugak eta kokapen bikaina.



**JÓN UNAMUNO**  
JARDUN

Bergarako kultur arlo ezberdinak hartu beharko litzuzke aintzat, eta erabili beharko litzateke bai entseguetarako eta baita zuzenekoetarako ere. Eta, jakina, kultura eskaintza zabala jaso beharko luke: antzerkia, musika, zinea... Ze hor egon liteke Bergarak merezi duen ganorazko eta kalitatezko zine aretoaren kokapena.



**ITXASO AZKARATE**  
TAUN-TAUN

Antzerkia, dantza, musika, zinea... eskaintzeko erabilpen eta formatu askotariko aretoa behar luke izan. Seminarioak kokapena du ona, baina mugak ere baditu, eliza bat delako, eta horregatik oso proiektu ona egin behar da. Bestalde, programa jarraitu eta ganorazko bat ere behar du, ez urtean bitan erabiltzea.



**VALEN MOÑUX**  
BERGARAKO ORFEOIA

Seminarioak muga asko izango ditu, lau zutabe handi horiek kapazitatea eta ikusmena asko baldintzatzen dutelako. Elgetako kafe antzokia ez da eredia gureta; aldiz, Arrasateko Amaia aretoa bai, dauzkan kapazitate, eszenatoki edo akustikagatik, bai kontzertua egiteko, antzerkirako edo zinerako.



**ASIER ALTUNA**  
ZINEGILEA

Izan beharko luke polibalentea eta dinamikoa, hau da, edozein motatako erabilpenekoa: musika, zinea, antzerkia, zutik ikusteko kontzertua... Oso dotorea eta elegantea izan beharrea, praktikoa. Bestetik, plaza hilda dagoenez, bizitasun apur bat emateko eta kulturako bilgunerako ondo legoke taberna izatea.



**AITZOL MUJIKA**  
MUSIKARIA

Ez luke izan beharko urtean behin egiten diren emanaldi erraldoi horietarako, kapazitate txikiagoko musika, antzerki, zinea..., ekitaldiak ikusteko baik. Erabilpen askotakoa. Formatu ertain eta txikiokoendako. Eta, programazio aldetik, dinamikoa eta jarraitua; Elgetan dugu adibidea kafe antzokiarekin.



**IÑIGO ALBERDI**  
MUSIKARIA

Seminarioaren ezaugarrietatik, oso erabilpen mugatua duela uste dut; ez da egokia ez zinerako, ezta antzerkirako ere, eta bai, ordea, edozein motatako musikarako. Daukan onena da kokapena. Bestalde, aretoa bezain inportantea izango da edukia eta horretarako programa ganorazko eta jarraitua egitea ezinbestekoa izango da.



**AMAIA ARRIARAN**  
MUSIKARIA

Bergarak erabilpen askotarako areto bat behar du. Hori bai, Seminarioa egokia da horretarako? Seguruena ez, ze Seminarioa eliza baita eta edozer gauza ezingo da egin. Labegaraietako kiroldegiarekin antzeko zerbait gertatu zen. Amaia antzokia da eredia: musika, antzerkia eta zinea ikusi eta entzuteko areto egokia da.



**ALFREDO GONZALEZ CHIRLAQUE**  
ORKESTRA SINFONIKOA

Kontuan izanda Seminarioan 400 bat lagunendako tokia izango dela eta hainbat musika emanalditarako pilotalekua erabiltzen segitu beharko dugula, uste dut auditorio berriari ahalik eta erabilpen handiena ematea izango litzatekeela egokiena: musika, antzerkia, zinea, batzarrak egiteko tokia... Kokagunea bikaina du, gainera.



**MIKEL LASKURAIN**  
AKTOREA

Musika, antzerki eta zinerako areto on bat izan beharko luke, eszenatoki bakarrarekin, antzerkia ganoraz egiteko beharrezko guztiekin, akustika onarekin... Eta musika kontzertuak, bertsolariak, banda, orkestra, eta zinea ere ikusi eta entzuteko. Areto on eta eroso ikusleendako ere bai, berogailu eta butaka onekin.



**UNAI AZKARATE**  
MUSIKARIA

Lekua ezin hobea da, eta, Aroztegi erakusketa aretoa ondoan dagoela kontuan hartuta, osagarriak izan daitezke biak. Kultura eskaintza ugaria eta askotarikoa jaso beharko luke auditorioak. Kudeaketari dagokionez, berriz, herritarrei eta herriko taldeei irekiko nizkieke ateak, ez dadin elitista bihurtu.

UDALBATZA/ BAri lekua egiteko orduan, irtenbide ezberdina planteatzen dute EAJ-EAk, Aralarrek eta herri plataformak

# Legealdi erdia bete denean, egindako lanaren iritzi ezberdina daukate alderdiek

EDU MENDIBIL

Udalbatzak legealdi erdia bete du dagoeneko. Nabarmenena beharbada zera da: Bergara Aurrera plataformari lekua ez zaio topatu udaletxean. Auzi hori eta udalbatzak egindako lanaren balorazioa aztertzeko alderdiengana jo dugu.

2003ko maiatzean hauteskundeak egin zirenetik, Bergara Aurrera plataforma udalbatzan dagoen tokia aldarrikatzen ari da. Jesus Mari Garitano BAKo ordezkariak udalbatza osatzen dutenen jarrera salatu nahi du: "Udalbatza ez da demokratikoa, bergararren zati bat ordezkaturik ez dagoelako. Guri dagozkigun zinegotzi aulkiak berreskuratzeko 182.2 artikulua aplikatzea eskatu dugu behin eta berriz, baina ez dago borondaterik egoera hau konpontzeko. Biderik ez da jartzen gu lanean hasteko, eta osoko bilkuretako gai zerrenda ere ez digute ematen. Gure proposamena Azkoitian jarri dute martxan. Udal gobernua ausartu egin behar da egoera honetatik ateratzeko. Egoera honi soluzioa emateko gauza ez bada, zertarako izango da gauza ba udalbatza hau?"

**ALKATEA: BA-REN AUZIA ETA BALORAZIOA**  
BAren auzian bestelako iritzia du Victoriano Gallastegi alkateak: "Gu izan ginen Partiduen Legearen aurkako errekurtsioa aurkeztu genuenok, eta ez gaude eroso oraingo egoerarekin. Dena den, lapurreta politikorik ez dago. Irtenbide politikoa topatu behar zaio auziari, Parlamentuan marko akordio bat lortuz. Azkoitikoa irtenbidea legearen barruan dagoen ikusteko dago". BAK batzordeetan parte hartu ahal izateko akordiorik ere ez da lortu, alkatearen arabera "eskaera behar den moduan aurkeztu ez dutelako. BAKo ordezkarietako bakoitzak eskaera bana egitea eta EHNaren ordezkari NAN agiria erabiltzea nahiko dute".

Orain arte legealdian egindako lanaren gainean zera diosku: "Politikoki ezegonkortasun egoera hori daukagu, baina gestio mailan pozik gaude egindakoaz. Inbertsio mailan kirolgunea da egitasmorik garrantzitsuena eta 2006ko udarako igerileku berria erabiltzeko moduan izango da. Bestalde, etxebizitza mailan 1.000 etxebizitza inguru egingo dira



2003ko ekainaren 14an osatu zuten udalbatza. Argazkian, 2003ko uztailan aurrekontua aztertu zuteneko osoko bilkura. Legealdiaren erdia bete da dagoeneko.

San Antonion (Algodonera eta Movillas lantegien lehengo terrenotan), San Lorentzon (Tornilleria Deba) eta Mariaren Lagundian, horietatik 300 bat babes ofizialekoak. Industria sustatzeko, berriz, terrenoak egokitu nahi ditugu San Juanen, Murinondon eta Elorregi inguruan". Legealdia amaitu bitartean, auditorioak, Zabalotegiko aretoaren berritzeak eta tranbiak berebiziko garrantzia izango dutela dio alkateak. Era berean, Urteagako lanak amaitzeko irrikaz dago, "koste ekonomiko eta sozial handiak ekarri baitu hango auziak".

#### ARALAR, EAJ-EA-REKIN GOBERNUAN

EAJ-EA koalizioak eta Aralarrek osatzen dute gobernua. Iñigo Iñurriategi Aralarreko zinegotziaren arabera, "ez gaude oposizioan, baina gobernuan egoteak ez gaitu ezertara lotzen, gure boto emaitza iritziari besterik ez".

Datozen erronkak direla eta, orain arte bezala jarraitu nahi lukete: "Eragiteko daukagun gaitasun hori ahalik eta gehien erabiliz. Legealdi honetako bigarren erronka BAKen parte hartzea izango da".

## EAJ-EA eta Aralar gobernuan, EB, PSE-EE eta PP oposizioan eta BA udalbatzatik kanpo

Aralarrek legealdi hasieratik BAKen parte hartzea lortzeko proposamenak egin dituela aldarrikatzen du: "gainontzeko inplikatuak ez dituzte gure ekarpenak ontzat hartu. EAJ-EAK ez du pausu erdirik eman gai honetan eta plataformakoak 182.2 artikulua aplikatzeko exijitzen hasi ziren. Hori ez dugu onartzen, guk plataformari bere garaian zerrenda garbiak exijitzea zilegi ez den bezala. Beste gauza bat da eskatzea. Azkoitian gertatzen ari dena ikusita, gu ere bide hori aztertzen ari gara, oraindik ez dagoelako garbi bideragarria den ala ez. Kontua da beraiek Nafarroako hainbat herritan Azkoitian egindako egiteko aukera izan dutela bide hori posible dela frogatu

ahal izateko, eta orain arte ez dute ezer egin, nahiz eta guk hainbat aldiz eskatu".

Kirolgunearen gai modu egokian bideratzeko Udala eta BAKen arteko akordioa beharrezkoa ikusten dute Aralarren. Bestalde, kultur azpiegituren gaian, berandu jokatu dela uste dute eta etxebizitza dagokionez eskaintzan eragin behar dela diote.

#### HIRU ALDERDI OPOSIZIOAN

PSE-EE, Ezker Batua eta PP alderdiak dira oposizioan. Javier Garaireren (PSE-EE) hitzetan, "osasuna eta ongizateko gaiei lehenetasuna emateko beharra ikusten dugu, alde batetik anbulatorioko urgentzia zerbitzua eskasa iruditzen zaigulako eta bestetik Mizpirualdeko prezioak garestiak direlako. Edozelan ere, orokorrean ondo ikusten dugu egiten ari diren beste lan batzuk: kaleak eta bideak konpondu, kolektoreko lanak... Legealdia bete bitartean hainbat lan daude egiteko, kultur aretoaren arazoa konpontzea tartean".

Andres Diez Ezker Batuko zinegotziak kontinuumoa leporatzen dio gobernuari: "Aurreko

urteotako dinamikarekin jarraitzen dute eta ez dago berrikuntzarik. Aurrekontuari dagokionez, beranduegi onartzen da eta ez dakar onurarik herritarrendako: gastu soziala gutxitzen doa eta udal zergak, aldiz, garestitzen. Bestalde, udal erabakietan ez dago herritarren parte hartzerik eta hori konpontzeko ez da ezer egiten. Aurrekontua lantzeko giza kolektiboaren parte hartzea beharrezkoa ikusten dugu, herritarren inplikazioa bermatzeko".

Angel Santano PPko zinegotziak bere alderdikideekin harreman estuagoa botatzen du faltan: "Gure boto emaitza kezkak zirela diren jakin nahi nuke, baina ez dira orain arte niregana zuzendu. Bestalde, oposizioan egoteak ez du erabakietan parte hartzeko aukera handirik ematen. Edozein modutan, orokorrean ados egoten gara udal gobernuarekin, gai politikoak aztertzen direnean izan ezik". Diezek bezala, aurrekontua lehenago onartu beharko litzakeela dio PPko ordezkariak: "Emendakinak egiteko aukera egon beharko litzateke, aurrekontua orokorrean aztertu beharrean".



Clínica Oftalmológica  
**RECALDE**  
Oftalmología Clínica

# www.clinicarecalde.com

MIOPIA LASER - KATARATA EBAKUNTZAK

Plaza Barria, 2 - 2º - 20600 EIBAR (Gipuzkoa) - Tfnoa.: 943 20 18 44

JAIAK/ Santa Marina egunean, Herri Meza 19:00etan

# Santamainako jaiak asteburuan

E.M.

Santamaina jaiak aurrera egingo dute aste bukaeran. Gaur, egubakoitza, erretiratuei eta gutxituei zuzendutako jokoak izango dira eta bihar, zapatuan, disko festa izango da Matxiategin, gauz. Santa Marina eguna astelehenean ospatuko da.

Etxafuego jaurtiketa kanpai hotsekin hasi ziren Santamaina jaiak atzo, eguna. Erretiratuei zuzendutako jokoen finalak gaur, egubakoitza, jokatzekoak ziren, arratsaldean. Ondoren sari bana-keta egingo dute eta jarraian kukainak izango dira. Era berean, 19:30ean, boccia txapelketaren ekitaldi berria izango da. Gutxi-tuendako petankaren estiloko jokoak da boccia: aurtengoa 13. ekitaldia egingo dute.

Bihar gauean, berriz, disko festa izango da Matxiategin, 21:00etan. Domekan, txistulariekin kalejira 09:00etan, Meza Nagusia 11:30ean eta Udal Musika Bandaren kontzertua Fraisko-zurin, 12:30ean.

**SANTA MARINA EGUNA ASTELEHENEAN**  
Astelehenean, Santa Marina eguna ospatzeko, Herri Meza izango da 19:00etan, Udal Korporazioarekin. Mezaren ostean Aritzeta abesbatzak saioa eskainiko du.

*Udal Musika  
Bandak kontzertua  
eskainiko du  
domeka eguerdian  
Fraisko-zurin*



Santa Marinako irudia Sierbetatik parrokira eraman zuteneko argazkia, orain dela bi urtekoa.

MIGURA



## Udal Musika Bandako kideak Gorlako aldapetan, bizikletan

Udal Musika Bandako hainbat kidek Gorlara txirrindulari igoera egin zuten aurreko zapatuan. San Martin plazan eta sinadura kontrola egin ondoren, 10:00etan ekin zioten igoerari. Telebista kama-ra eta guzti abiatu ziren, eta bizikleta gainean aritu zirenek estilo eta sasoi ona azaldu zuten. Aitor Elortza eta Arantzazu Agirre izan genituen irabazleak. Altzasun bazkaldu zuten. Euskaltelekoek badute non fitxatu hurrengorako.

## LABUR

### Odol ateratzea egingo dute hilaren 27an eta abuztuan beste bi izango dira, 10ean eta 24an

Bergarako Odol Emaileen Elkarteak aditzera eman duenez, hurrengo odol ateratzea uztailaren 27an egingo dute Seminarioan, ohiko ordutegian. Abuztuan bi izango dira, hilaren 10ean eta 24an. Odol emaleei bertara joateko deia egin die elkarteko arduradunek.

### Arantzazuko santutegira erromesaldia egingo da datorren uztailaren 25ean

Ohikoa denez, Arantzazuko santutegira erromesaldia egingo da uztailaren 25ean, goizez. Ondoren, arratsaldean, Loiolako santutegira joateko aukera ere izango da egun horretan.

Bergararik autobusa aterako da, 09:30ean. Txartelak 6 euro balio du eta bazkarirako txartelak 16 eurotan daude salgai Agirrebeñan (San Antonion), Zerkauzin (Ozaetan) eta Barrenkaleko Zatoia dendan.

### Bedelkarren udako zozketan 44.631, 73.473 eta 24.462 izan dira saritutako zenbakiak

Bedelkarren udako zozketan hauek izan dira saritutako zenbakiak: 44.631 (500 euroko erosketa bonoa), 73.473 (300 eurokoa) eta 24.462 (200 eurokoa).

Bigarren saria Amaia Maiorarentzat bergararentzat izan da. Lehen saria Kabutzian eta hirugarren saria Jakinan banatu zituzten.



ALTEA berria. Deportiboa. Erabilerari anitzekoa. Funtzionala. Egun guztietarako auto aproposa. Segundo bakoitzeko. Azkarra. Espazioarekin. Bihurgune mirengarri eta liluragarriak. Goitik beherako aldakuntza detalle bakoitzean.

**Km 0**  
kostu prezioan

Stock-aren likidazioa

•Toledo •Cordoba •Ibiza •Altea

Seat IBIZA 1.4 75 cv  
2 Airbag, ABS  
Llankak  
Klimatizadorea  
Irrati-kasetea

10.500 €

Toledo TDi 110 Sport  
ABS, ESP, 4 Airbag  
Klimatizadorea, Llankak  
Pintura metalizatuak  
Jarleku deportiboak

17.400 €

SEAT ALTEA BERRIA

TALLERES ASEGUINOLAZA, S.L.

Urteaga 37 Bergara Tel.: 943 76 12 50 Faxa: 943 76 47 51



**FUTBOLA/** Elgetako Fo Fo Fo taldea hirugarren urtez jarraian iritsi da finalera

# Gizonezkoen finala jokatu da gaur Ipintzan, 20:00etan

EDU MENDIBIL

Gaur, egubakoitza, Ipintzako gizonezkoen finala izango da, 20:00etan. Angiolak eta Fo Fo Fo taldeek jokatu behar zuten, baina Angiolak uko egin dio finala jokatzeari. Hainbat jokalaririk antzularrak dira, eta, jaiak direla eta, finalera etortzerik ez dutela esan dute.

Liga txapelketako finalerdiak astelehenean jokatu ziren. Biak ere oso parekatuak izan ziren: Angiolak 3-2 irabazi zion Tito's Getokuak taldeari eta Fo Fo Fok Hotel Ormazabal mendean hartu zuen, 2-1. Esan bezala, Antzulan jaiak direnez, Angiolak finala atzeratzea eskatu zuen, baina antolatzaileek ezinezkoa zela esan zioten. Txapelketa hasieratik egutegia zehaztuta zegoela eta final egunerako hainbat konpromiso hartuta zeuzkatela adierazi dute antolatzaileek.

Gauzak horrela, finalerdietan galtzaile atera ziren bi taldeen artean erabakitzeak zen beste finalista, eguzten gauean. Beraz, Tito's Getokuak edo Hotel Orma-



Fo Fo Fok penaltietan galdu zuen iazko finala. Duela bi urte txapelketa izan ziren.

zabal izango da Fo Fo Fori gaur aurre egingo dio taldea. Finala, esan bezala, 20:00etan izango da.

Bestalde, kopako finalerdiak eguzten arratsaldean jokatukoak ziren. Aurtengo nobedadeetako bat izan da kopa txapelketa. Finala gaur jokatu da, ligako finalaren aurretik, arratsaldeko 18:45ean.


## OGIZUN TXAPELDUN

Senior mailako nesken finalean, Ogizun 2-0 nagusitu zitzaion Potzu Ta Zapaburuak taldeari, aurreko egubakoitzean, Ipintzan. Ebak eta Idoiak sartu zituzten txapelketa golak. Hirugarren postua eskuratzeko partiduan, Ou Pitxu Ou! taldeak 3-1 irabazi zion Pentol's Team taldeari.

# Albisua anaiak Japonian egon dira, shinkyokushinkai maisuekin ikasten

E.M.

Carlos eta Aitor Albisua anaiak Japonian izan dira ekainaren 17tik 24ra. Shinkyokushinkai modalitatea egiten duten hainbat karatekarekin egon dira han, Osakan eta Koyasanen. Japonian omen daude borroka-arte horretako maisuak eta Albisua anaiak liluratuta itzuli dira han bizi izandako esperientziak: "Bizitza bizi izateko eta ulertzeko modu bat da eta borroka da estilo horren helburuetako bat. Asko ikasi dugu", esan digu Carlosek. Biek gerriko beltza daukate (3. dana). Laugarrena eskuratzeko Japoniara joan nahi dute, bi urte barru.



Aitor eta Carlos Albisua, Koyasanen ateratako argazkian.

## LABUR

### Gazte mailako Santamainako txirrindulari saria jokatu da bihar, zapatua

Santamaina jaietako programaren barruan, gazte mailako txirrindulari saria jokatu da bihar, zapatua. Probaren 14. ekitaldia izango da biharkoa. Lasterketa 16:00etan hasiko da eta 18:30ak aldera iritsiko dira txirrindulariak Matxiategiko helmugara.

### Bergara Igeri Elkarteko beteranoak, onenen artean Gipuzkoako txapelketan

Ordizian jokatuako Gipuzkoako txapelketan, Kepa Irizar lehena izan zen 50 eta 100 m tximeleta estiloan; Unai Alberdi lehena 50 m bizkar estiloan eta 2.a 100 libreetan; Javier De Borja lehena 100 m bular estiloan eta 2.a 50 m-koan; eta Juan De Borja bigarrena 100 libreetan eta 5.a 50 m-koan. 4x50 m-ko errelebo proban, 2. postua eskuratu zuen laukote bergararrak.

### Pol-Poleko beteranoen irteera domekan Jaizkibelera eta irailean Pirinioetara

Pol-Pol Mendizale Taldeko beteranoak domekan, uztailaren 17an, Jaizkibelera joango dira. Irailaren 9tik 11ra, berriz, Pirinioetako Aran bailarara irteera egingo dute. Argibideak Pol-Poleko bulegoan, aste barruan, 19:00etatik 20:30era edo 943 76 48 51 zenbakian.



### Igerilariak bost domina lortu zituzten

Igeri Elkarteko ordezkariak bost domina lortu zituzten Euskal Herriko Txapelketan, Galdakaon: Ana Balentziaga lehena izan zen 100 libreetan eta hirugarrena 50 libreetan; Nielka Iburgurenak bigarren postua lortu zuen 200 bular estiloan eta 3.a 100 m-koan; eta Mikel Labaka hirugarren sailkatu zen 100 m estiloetan. Horiez gain, Erik Gorostiaga, Irati Fernandez, Amaia Azpeitia eta Ainhoa Goenetxea ere lehiatu ziren. Orain, itsasoko zeharkaldietan arituko dira bergarar igerilariak.

# OGIZUN

koop. elk.  
okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10  
BERGARA OÑATI  
943 76 45 53 943 78 24 13

# ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

# ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09

MUSIKA/ 'Udako gauak' programaren emanaldia gaur Espoloian, 22:30ean

# Tr3s Hombres taldearen fusio doinuak Espoloian

EDU MENDIBIL

**Udako gauak** programaren barruan, hirugarren hitzordua izango dugu gaur, egubakoitza: Tr3s Hombres taldearen rhythm-and-blues emanaldia iragarrita dago Espoloian, 22:30ean. Fusioa eta bat-bateotasuna dira taldearen ezaugarri nagusiak.

Jazz, blues, soul, funk, reggae, swing, rhythm-and-blues eta afro-amerikar musika ardatz dituen seikotea da Tr3s Hombres. Taldea handitu egin da nonbait. Jairo Zabala (ahotsa eta gitarra), Javier Vacas (baxua), Antonio Alvarez (bateria), Daniel Madariaga (hammond), Gautama del Campo (saxoa) eta Norman Hoguek (tronoia) osatzen dute taldea.

Bi disko kaleratu dituzte dagoeneko, ¡Our favorite songs! eta

Sesiones 224 226 izenburukoak, hain zuzen ere.

Esan bezala, estilo beltzak fusionatu eta horren inguruan inprobisazioa egiten duen taldea dugu Tr3s Hombres. Izan ere, bertsiok interpretatzea dute ardatz nagusi, batez ere musika afro-amerikarra, hainbat musikari zuriren zantzuak alde batera laga gabe.

Besteak beste, kantu hauen bertsiok jaso dituzte Sesiones 224 226 izeneko diskoan: Mem-

phis train (R. Thomas), Jesus just left Chicago (Gibbons, Hill, Beard), Jan jan (M.Davis), Over and over (F. Smith), Midnight cowboy (L. Morgan), Out of sight (J. Brown), Messin around (M. Slim), I need you (E. James) edo Since I been loving you (Page, Plant, Jones).

**TERESA ZABALTA 5ET, HILAREN 22AN**

Hurrengo egubakoitzean, uztailaren 22an, Udako gauak programaren azken kontzertua izango da Espoloian, Iruñeko Teresa Zabaltza 5et taldearen eskutik.

Abuztuko eguenetan aire libreko zinema emanaldiak egingo dituzte San Martin plazan: Abuztuaren 4an *Las mujeres perfectas*; hilaren 11n *Beckham izan nahi dut*; hilaren 18an *Los padres de él* eta, azkenik, abuztuaren 25ean *George eta herensugea* emango dituzte. Emanaldiok 22:00etan izango dira.

**Estilo beltzak fusionatu eta horren inguruan inprobisatzen duen taldea da**



Tr3s Hombres taldeak bi disko kaleratu ditu dagoeneko.

## 'Sarea' film laburra egin berri du Asier Altuna bergararrak

E.M.

Asier Altuna *Kixi* zinemagile bergararrak *Sarea* izenburuko film laburra filmatu berri du. Arrantzaleen eta immigrazioaren gaineko istorioa kontatzen da *Sarea* film laburrean; Getariako hiru arrantzalek eta bost etorkinek egin dituzte aktore lanak. Paisaian eta Getarian filmatu dute, uztailaren 6an eta 7an. Udazken aldera, Jauriaritzako Kimuak ekimenaren bitartez, *Sarea* zabaltea da *Kixi*-ren asmoa. Hark esan digunez, *Topeka* film laburraren estiloko istorio laburra da.



BERRIGARA

*Topeka*-ren ostean, Asier Altunak bakarka filmatzen duen bigarren lana da *Sarea*.

**'AUPA, ETXEBESTE', ZINEMALDIAN**

*Aupa, Etxebeste!* filma Donostiako Zinemaldian estreinatuko dute irailean. Zinemaldiaren 53. ekitaldia irailaren 15etik 24ra egingo da eta Zabaltegi sailaren

barruan emango dute *Aupa, Etxebeste!* umorezko filma. Joan den abuztu amaiera aldera hasi ziren *Aupa, Etxebeste!* grabatzen, Ber-

garan, eta herritar asko aritu dira aktore lanetan. Asier Altuna eta Telmo Esnal zarauztarra dira filmeko zuzendariak.

## LABUR

### Gazta dastatze ikastaroa izango da datorren irailaren 8an, kultura etxean

Udaleko Kultura Zerbitzuak aditzera eman duenez, gazta dastatze ikastaroa izango da datorren irailaren 8an, 19:00etan. Ikastaroa euskaraz izango da.


Plaza mugatuak dira. Gehienez, 25 lagunek parte hartu ahal izango dute. Izena emateko epea irailaren 6ra arte izango da zabalik. Argibideak 943 77 91 59 zenbakian.

### Sokamuturraren gaineko hitzaldia izango da gaur Aroztegi aretoan, 20:00etan

Iñaki Azkunek eta Juan Luis Bikuñak sokamuturraren gaineko hitzaldia egingo dute gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan, 20:00etan. Eduardo Arrillagaren *Sokamuturra* izenburuko argazki erakusketa ikusgai dago bertan, uztailaren 24ra arte.

### Zeberio eta Mañukortarekin bertso afaria izango da, Basalgoko jaien barruan

Hurrengo zapatuan, hilaren 23an, Zeberio eta Mañukortarekin bertso afaria izango da Basalgoko jaien barruan. Izenematea uztailaren 20ra arte izango da zabalik, Iraho (943 76 15 59) eta Mekoalde (943 76 50 18) tabernetan.



**POL-POL**  
Taberna

943 76 07 78. Bergara

**KONDE**  
PANADEROKUA



Burdiñate 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA

**EDEL**  
TAPIZ DENDA

*Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena*

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak,  
koltxak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

E, TXO!

**'GOMENDATZEN DIZUT' LEHIAKETA BERRIZ ABIAN**

Abian da *Gomendatzen dizut* lehiaketaren hirugarren edizioa. Gazte Informazio Gunean jasoko dute bidaietatik bueltan jendeak ezagututako lekuei buruzko informazioa. Gomendioak urriaren 26a baino lehen bidali behar dira helbide honetara: Gazte Informazio Bulegoa Errotalde Jauregia 20570 Bergara. E-postaz [gzerbitzua@euskalnet.net](mailto:gzerbitzua@euskalnet.net) helbidera. Parte-hartzaileen artean landetxe batean asteburuko egonaldia zozketatuko da urriaren 28an.

**NAZIOARTERAKO ETA ATERPEETARAKO TXARTELAK**

Udako oporretan baliagarri izan daitezkeen hainbat txartel eskuratu daitezke Gazte Informazio Bulegoan. Dirua sartzeko inprimakia bulegoan jaso eta dirua sartu ostean, beharrezko dokumentazioarekin bulegora joanda momentuan egiten dute. Txartel motak honakoak dira: nazioarteko ikasle, gazte eta irakasle txartelak zein aterpe kide txartelak.

**TEKNOLOGIA SORKUNTZEN LEHIAKETARAKO PROIEKTUAK**

Medio Berriendako Nazioarteko Zentroak lehiaketa antolatu du. Helburua da e-content eta teknologia sorkuntzen esperientzia onena aukeratzea eta sustatzea. 16 eta 27 urte bitarteko gazteek abuztuaren 31 baino lehen aurkeztu behar dituzte proiektuak. Informazio gehiago honako helbideak aurki dezakete interesatuek: [www.youthaward.org](http://www.youthaward.org).

**LANKIDETZA BEKAK UNIBERTSITATERAKO**

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak 2.854 lankidetzak beka emango ditu 2005/2006 ikasturterako. Unibertsitateko azken mailan dauden ikasleek, ikasten diharduten bitartean irakasleekin lan egiteko edo unibertsitateko ikerketa zentroetan laguntza eskain dezaten errazteko izango dira beka hauek. Horrela, ikasten ari diren bitartean ikasketekin zuzenean lotutako ikerketa zereginetan jardungo dute aldi berean. Beka eskariak irailaren 30a baino lehen egin behar dira. Informazio gehiago honako telefonoan eskura daiteke goizez deituta: 902 111 225.

**GUREGAIK/ GAZTEK UDALAKUETAN LANEAN**

**Umeen pare ibiltzen dira gazteak udalekuetan**

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Umeak dira udalekuetako protagonista; baina ume horiek zainduko dituenik egon ez ezean ez legoke udalekurik. Askotan gazteek egiten dute zaintza lana, begirale lana alegia. Udalekuetan beste lanik egiten duen gazterik ere bada.**

Udan gaude eta umeak oporretan. Uda guztietan errepikatzen den irudia da udalekuena. Umeak aisialdiaz gozatzeko gertu eta begiraleak lanerako prest.

Gazte askok jarduten dute begirale lanetan udan. Batzuek diru apur bat ateratzeko, besteek umeak gustuko dituztelako, eta bada bi arrazoi hauek uztartzen dituenik ere.

Udaleku irekietan ibiltzen dira batzuk. Umeak euren etxetan egoten dira eta eguneroko aisialdi ekintzetan hartzen dute parte begirale hauekin. Beste batzuek, berriz, astebeteko zein bi asteko egonaldiak egiten dituzte etxetik kanpora umeekin; eta badira bietan parte hartzen duten umeak eta begiraleak.

**BESTELAKO LANAK**

Umeek udalekuetan ez dute jolas bakarrik egiten, ordea. Haudandako janaria prestatu, euren arropak garbitu... ere egin beharra dago, eta batzuk horretara joaten dira udalekuetara.

Batzuek ongi pasatzeko beste batzuek lan egin behar dute. Umeak zaintzea eta euren ekintzak gertatzea izaten da begiraleen lana. Hala ere, begiraleek batzuetan umeek bezain ongi pasatzen dute.

Begirale titulua eskatzen dute askotan lan hauetan jarduteko. Titulu hori eskuratzeko ikastaroa antolatu dute datorren ikasturterako Debagoieneko euskara elkarteek. Honen gaineko informazioa Jardunen lor daiteke.



Begiraleen lana da umeendako ekintzak antolatzea.



**UXUE AMASORRAIN**  
UDALEKU IREKIAK ETA URDIROTZ

Bergarako udaleku irekietan begirale lanetan jarduten du eta Urdirrotzen sukaldari moduan. Diru pixka bat ateratzeko joaten da udalekuetara, baina baita ikasteko ere. "Irakasle ikasketak egin nahi ditut eta praktika hartzeko baliagarri izan daitezke udalekuak; Urdirrotzen, baina, ez dut tratatu askorik umeekin"



**AINHOA UNAMUNO**  
KIROL UDALAKUAK

Kantabrian egon da Ainhoa hamar egunez begirale modura. Urtean zehar ere Eskola Kirol programan begirale lanak egiten ditu eta ohituta dago umeekin. Umea zenean joaten zen udalekuetara eta orduan bezain ongi pasatu du kirol mordoia eginez. "Esperientzia errepikatzeko modukoa izan da", esan digu.



**MAITE MAIZTEGI**  
INGELES UDALAKUAK

Bigarren urtea du ingeles udalekuetan begirale. Iaz Eibarren izan zen eta aurten Bergaran. "Opor guztiak lanean pasatu gabe diru pixka bat ateratzeko modu egokia da begirale lana", esan digu. Filologia ikasten dihardu eta egunen batean eskolak eman behar izanez gero, umeekin eskarmentua izango du.

**LOTSABARIK/ Arkaitz Gonzalez**

**"Jendearen zain egoteak amorratzen nau"**

I.A.

**Batxilergo ikasketak amaitu eta unibertsitatean hasiko da hurrengo ikasturtean. Bitartean, udako oporretan lan egiteko asmoa du. Argi esan digu hori eta gure galderei ere zuzen eta argi erantzun die.**

• Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke?

Gauza asko. Kirol zerbitzuak hobetuko eta merkatuko nituzke; baita herrian aparkaleku gehiago ipini ere.

• Zure karpetan zer irudi edo pegatina daukazu?

Dendetan arropak erositakoan ematen dituzten pegatinak.

• Telebistako saiorik gorrotagarriena? Eta gustukoena?

A tu lado gorroto dut, batzuetan ikusten dudana arren. *Siete vidas*, berriz, gustatzen zait.

• Pertsonaia higuinagarriena? Eta gustukoena?

Sara Montiel eta antzerakoek ematen didate higuina, ezer egin gabe ongi bizi dira eta. Bestalde, *Aqui no hay quien viva* telesaila, Fernando Tejero, gustatzen zait.

• Zerk amorratzen zaitu?

Jendearen zain egoteak; nahiz eta ni ere batzuetan hitzordueta berandu agertu.

• Zer estimatzen duzu besteengan?

Pertsona justua izatea.

• Zeri ematen diozu lehentasuna bizitzan?

Zoriontasunari.

• Zure bertute bat? Eta akats bat?

Akatsa, *despistatua* naizela. Bertutea, berriz, jendearekin ona naizela, onegia agian, inuzentea.

• Zelan ligatzen duzue gazteok?

Gakoa egoki hitz egitean dago.

• Zure bikotekide ideala zela-koa izango litzateke?


Maitekorra izatea nahikoa da.

• Nora eta norekin egingo zenuke bidaia bat?

Txinara, lagunik onenarekin

• Etorkizunerako amets bat?

Ametsak asko: loteria tokatzea, motoa izatea, musika talde batean jotzea... Betetzea da zaila.



MINGAINARITIRAKA



Amaia  
Alberdi

KZGUNeko TUTOREA

Apirila ezkerok dihardu Amaiak KZgunean lanean; hura da KZguneako tutorea eta, besteak beste, hainbat ikastaro ematen du. Bitxia bada ere, Internet gutxi erabiltzen duela azaldu digu, lanean nahikoa ibiltzen dela-eta ordenagailuarekin.

Internet barik bizitzen asmatuko genuke?

Ez dut uste; Internet falta zaigunean galduta ibiltzen gara.

Zeuk zertarako erabiltzen duzu gehienbat?

Lanerako; gainerakoan, ez dut askorik erabiltzen, lagunekin egoteko eta bidaiaren baterako informazioa topatzeko, gehienbat.

Ze jende etortzen da gehien KZgunera, gazteak ala nagusiak?

Denetik; ikastaroetara gehiago etortzen dira jende nagusia eta etorkinak, baina, nabigatzera adin guztietakoak.

Txateatzen, adibidez, jendea *engantxatu* egiten ei da.

Bai, hala esaten dute, baina, hemen, KZgunean, ezin da txateatu.

Zure lanean, zer da gehien gustatzen zaizuna?

Beti jende ezberdinarekin gaudela eta beti lan ezberdinak egin behar ditudala: ikastaroak eman, jendeari arreta eskaini...

Eta gutxien?

Pazientzia pixka bat behar dela, eta nik ez daukat handirik.

Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?

Lasai egotea, irakurtzea, lagunekin egotea...

Liburu bat?

*Los pilares de la tierra*, Ken Follet-ena.

Noiz itxiko duzue KZgunea?

Uztailaren 29tik irailaren 1era egongo da itxita.

Oporretarako planik egin duzu?

Gutxi gorabehera; Pirinioetara eta Girona aldera joango gara.

Dena dela, guk bezperan erabakitzen ditugu horrelakoak.

Asteburu baterako plan ideala?

Zerbait ezberdina egitea, herritik irtetea, behintzat. Aurreko asteburuan, esaterako, Asturiasen egon ginen.

Bergarako txoko bat?

Labegaraieta ingurua, hantxe dauzkat-eta lagunak.

Bergaran zer falta dugu?

Kaleko bizitza.

Eta Bergarako gauza onena?

Lasai bizitzeko herria dela.

Ametz bat?

Ezustekorik gabe bizitzea eta ingurukoak pozik ikustea.

AINTZANE IRIZAR

NIREBIDAIAHURA / Ugutz Basauri

ZILARRAREN IBILBIDEA / 2005eko ekainean

**E**rika neska-lagunak eta biok bizikletaz egin genuen ekainean Zilarraren Ibilbidearen (Ruta de la Plata) zati bat: Sevillatik Zamorara bitartekoa, hain zuzen ere.

Erromatarren garaian egin-dako galtzada bat da Zilarraren Ibilbidea; dena dela, gerora, Santiagora joateko edota ganadua Extremaduratik iparraldera (Picos de Europa, adibidez) eramateko erabili izan da, gehienbat. Berez, Meridatik Astorgara da Zilarraren Ibilbidea, baina, Sevillatik Santiagorako bideak ere izen hori hartu du. N-630 errepidearen ondotik doa, eta askotan, errepide horretara irteten ginen, galtzada egoera txarrean zegoelako. Dena dela, Meridara iritsi ginenera arte ez genuen galtzadarik ikusi. Guztira, 600 bat kilometro egin genuen, bederatzi etapatan.

Sevillara hegazkinez joan ginen eta bizikletak mezulariz-erbitzu bidez bidali genituen. Lehenengo egunean Sevilla bisitatu genuen, eta izugarri gustatu zitzaigun. Hurrengo egunean abiatu ginen lehendabiziko etapa egitera; hasteko, 60 bat kilometro egin genituen eta El Ronquillo herri-ira iritsi ginen.

Aterpetxeetan eta ostatueta lo egin genuen eta egunero menuren bat jaten genuen bazkaltzeko. Geu-



*“Sevillatik Zamorara bizikletaz joan ginen; guztira, 600 bat kilometro egin genituen”*

*“Astorgara iristeko bi etapa bakarrik geratzen zitzaizkigun eta bukatzeko gogoz geratu ginen”*

re oporrak ziren eta disfrutatzera joan ginen, ez sufritzera. Horregatik, erosotasuna topatu genuen.

Bigarren etapan, El Ronquillotik Fuente de Cantos (Badajoz) herrira joan ginen. Oso herri polita da. Hurrengo egunean, berriz, Meridara. Asko gustatu zitzaigun Merida; erromatarren aztarnak daude hantxe. Meridatik Caceresa abiatu ginen. Hiri ederra da, benetan. Erdi Aroko kutsua dauka. Ez geneukan han geratzeko asmorik, baina, ikusi genuenean zelako ederra zen, egun bat hantxe pasatzea erabaki genuen.

Caceresetik Plasenciara joan ginen; hiriaren kanpoko aldeko ostatu baten pasatu genuen gaua eta hurrengo egunean Baños de Montemayor herrira joan ginen. Hantxe, bainuetxe baten egon ginen, erlaxatzen. Gaztelarekin mugan dago herri hori. Inguru horretan mendi gehiago topatu genuen.

Handik Salamancara egin genuen hurrengo etapan. Azkene-ko etapan, berriz, Zamorara iritsi ginen. Oso esperientzia polita izan zen; ea aukera daukagun hurrengo baten ibilbidea bukatzeko, Astorgara edo Santiagoraino iristeko.

AINTZANE IRIZAR



Erika eta Ugutz, Salamancako katedrala atzean ikusten dela.

**TELEIXA  
BILTEGIAK**

**Eraikuntza  
materialak**

Telleria (Labegaraieta)  
BERGARA  
Tel.: 943 76 27 93



**Irrintzi  
kafetegia**

Irala 3. BERGARA  
Tel.: 943 76 48 26

**disdira**

ile apaindegia  
edertze gela

Masterreka 7  
BERGARA  
Tel.: 943 76 00 55

**ezpeleta**

**Ostalaritzarako  
ehungintza**

Ostalaritza eta  
egoitzetarako  
mahai-zapi eta  
industri-ehunak

San Lorentzo 1, Bergara  
Tf. 943 76 28 77  
Tel.: eta faxa: 943 76 17 09

**Ganbara**


TABERNA

**Heure erara  
ibiltzeko!**


Irala z/g.  
**BERGARA**  
Tel.: 943 76 55 75

**BONOFOTOA**

Erdi ezkutuan dagoen iturri hau ze elkartetik dago gertuen: Alzasu, Gorla ala Iru-Bidetik?



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

JOSE VICENTE SANTAMARIArendakó izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Jose Vicente!  
Galderaren erantzun zuzena: **Itza.**



BONOFOTOKO GALDERAREN ERANTZUNA: .....

Ekarri txartela **MARTITZEN ÉGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

**Kas Naranja lata**

33 cl. 8ko packa

**1,99 €**

331 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



**ERRETRATUZAHARRA**

BERGARA

**Santamaina jaietako banderadunak**

Santamainako jaiak ospatuko dira aste bukaeran. Hainbat ekitaldi prestatu dituzte. Kukainak, txirrindulari saria, disko festa eta Udal Bandaren kontzertua izango dira, besteak beste. Astelehenean, 19:00etan, herri meza izango da, Santa Marina eguna ospatzeko.

Garai batean danborrada egiten zen. Alboko argazkia 1988koa da eta orduko banderadunak hauek dituzue:

Zutik, ezkerretik eskumara: Eli Jauregi, Jone Santos, Eba Santos, Sonia Franco, Lidia Pineda eta Elisabeth Pineda.

Makurtuta: Lorea Egidazu, Itziar Iturbe, Mireia Larrañaga eta Ainhoa Ibarra.

Argazkia: Mireia Larrañaga



**ADI, IRAKURLE!**

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

**FARMAZIEN TXANDA**

- EGUBAKOITZA, 15**  
GUALLAR. San Antonio 5 . . . 943 76 11 05
- ZAPATUA, 16**  
MOZOS. Iparragirre 2 . . . . 943 76 12 15
- DOMEKA, 17**  
MOZOS. Iparragirre 2 . . . . 943 76 12 15
- ASTELEHENA, 18**  
ESTELLA. Matxiategi 5 . . . 943 76 19 63
- MARTITZENA, 19**  
MOZOS. Iparragirre 2 . . . . 943 76 12 15
- EGUAZTENA, 20**  
GUALLAR. San Antonio 5 . . . 943 76 11 05
- EGUENA, 21**  
ESTELLA. Matxiategi 5 . . . 943 76 19 63

**TELEFONOAK**

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) . . . . 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa . . . 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa . . . 943 76 62 46
- Ertzaintza . . . . . 943 53 47 20
- Osasun etxea . . . . . 943 76 24 40
- Asepeyo . . . . . 943 76 16 43
- Pakea . . . . . 943 76 13 49
- Angiozarko medikua . . . . . 943 78 90 27
- Antzuolako medikua . . . . . 943 76 62 23
- Odol emaleak . . . . . 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak . . . . 943 76 51 06

- GARRIAOK**
- Taxiak . . . . . 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea . . . . 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea . . . . 943 76 62 46
- Udal Artxiboa . . . . . 943 77 91 32
- Igerilekuak . . . . . 943 76 20 51
- Kultura etxea . . . . . 943 77 91 58
- Liburutegia . . . . . 943 77 91 62
- Kirolegia . . . . . 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza . . . . . 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia . . . . . 943 76 14 92
- Erregistroa . . . . . 943 76 13 15
- Jardun . . . . . 943 76 36 61
- Postetxea . . . . . 943 76 26 85
- Bedelkar . . . . . 943 76 04 68
- Akulu AEK . . . . . 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia . . . . . 943 76 44 53
- Bergarako notariotza . . . . . 943 76 10 73

**MEZAK**

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**  
Hileko bigarren domekan,  
10:30ean eta 13:00etan.
- San Pedro**  
Hileko hirugarren domekan,  
09:30ean eta 12:30ean.

**URBANOAK**

- San Lorenzo/San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00,  
11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00,  
16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20  
eta 21:00.
- GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Sorraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildiki okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**  
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00,  
10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50  
(Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik),  
17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00  
eta 20:40.
- GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolola (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.



## ATREBENTZIAEZPADA/ Tourreko Pirinioetako etapak asteburuan. Tourra jarraitzen duzu?



NEREA ZÜBIMENDI



PATXI RETOLAZA



AMAIA AGIRRE



VICENTE BERGARA



MAREN BELASTEGI



AITOR CORRAL

Ikusten dut telebistaz gizonari gustatzen zaiolako, eta derrigorrez, baina txirringularitza ez dut gustuko. Hala ere, Pirinioetara joateko gogoia beti izan dut, bertako giroak inbidia sortzen dit, eta noizbait joango naiz.

Bai, jarraitzen dut pixka bat. Egunero ez dut telebistaz ikusten baina noizbehinka bai. Pirinioetan ere izan naiz hiru aldiz Tourrean, baina aurten ezin naiz joan. Porrak ere bigin ditut aurten.

Ez daukat Tourra jarraitzeko ohiturarik, bizikleta mundua ez zaidalako bereziki gustatzen. Hango paisaia, berriz, gustuko dut eta Tourra aitzakia izaten da telebistaz bada ere Pirinioak ikusteko.

Bai, jarraitzen dut. Telebistaz ikusten dut txirringularitza gogoko dudalako. Hala ere, Tourra bertatik bertara ikustera ez naiz sekula joan. Porrarik ere ez dut egiten. Zalea naiz baina ez horrenbesteko.

Ez. Orokorrean kirolak ez ditut jarraitzen eta txirringularitza gutxiago, ez zait batere entretenigarria iruditzen. Bertara joanda giro ona egoten dela esaten dute, baina aukeran nahia- go dut beste planen bat egin.

Ez, batere ez. Ez zait gustatzen. Telebistan sarritan ematen dituzten kirolak dira nik gehien gorroto ditudanak; beharbada txikitatik derrigortuta sartu dituztelako edo askotan botatzen dutelako izango da.

### TXALOAKETATXISTUAK



**TXALOAK OZTOPO ARKITEKONIKORIK EZ** Aritz Bikuñak deitu digu Debortivo tabernako jabeak txalotzeko. "Taberna berri- tutean, kontuan hartu dituzte ezinduok eta gurgildun aulkian goaz- nok hainbat lekutara sartzeko izaten ditugun arazoak; eta modu ego- kian ipini dute gu iristeko, beraz, eskerrak eman nahi dizkiet". //A.

### BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Pelotoe"



— Danak pelotoian pasau die.

JON IRAEGI

### BESTEKEESANA

**Lehiakortasuna behar-beharrezkoa da gizartearen ongizatea garau ahal izateko. Lehiakorrak izan behar dugu, edo, bestela, ez gara hobeto biziko. Beste arazo bat da hori nola lortzen dugun. Lehiakortasuna erdiesteko berrikuntza eta prestakuntza beharrezkoak dira, are gehiago Euskadin dagoen industria sarea eta enpresa ertain eta txikiak duten nagusitasuna ezagututa. Berrikuntza produktu eta prozesuetan, baina erakundeetan ere gauzatu behar da, eta profesio- nalak egoki trebatzeko beharra dago, bezeroen eskariak gero eta zorrotzagoak eta sofistikatuagoak baitira.**  
**MIGUEL LAZPIUR /**  
**Confedebako presidentea**  
**'Berria' /05-07-13**

### HAUGIROA!

MINIMOA 11°C  
Domeka, 10

MAXIMOA 32°C  
Martitzena, 12

ASTEKO EURIA (l/m<sup>2</sup>) 4,2 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 6	20 °C	17 °C	2,2 l/m <sup>2</sup>
Eguena, 7	20 °C	14 °C	0,5 l/m <sup>2</sup>
Egubakoitza, 8	19 °C	15 °C	1,5 l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 9	23 °C	12 °C	— l/m <sup>2</sup>
Domeka, 10	24 °C	11 °C	— l/m <sup>2</sup>
Astelehena, 11	29 °C	11 °C	— l/m <sup>2</sup>
Martitzena, 12	32 °C	12 °C	— l/m <sup>2</sup>

San Juan auzoan jasotako datuak

### BERAIEKDIÑO/ Ainhoa Agirreazaldegí



*Kuba libre bat*

**H**alakorik inondik espero ez nuenean, Kubara bertotara joatea egokitu zait berriki. Munduan irla bat da Kuba; erresistentzia zeinu bakarrenetakoa, amerikarrek aurkako sinbologia. Herri alai, kantari, dantzari eta eskuza- bal honetatik bidean gurutzatu genuen urakanaren amorru berberarekin itzuli naiz, ordea, munduarekin inoiz baino haserreago.

Orain bostehun urte espainolek irla konkistatu ondoren, bertako ia indigena guztiak hil, eta afrikarrak eraman zituzten esklabo. Hiru kultura horien mestizaia zoragarria geratu zen uharte- an, eta kubatarrek, konkista- tzaileen seme-alabak izanik, gehienak, indigenen oinordeko direnaren sentimenduarekin bizi dira. Horra hor duintasunaren lehen ikasgaia, zapaltzai- learekiko gorrotoa baino zapalduarekiko maitasuna elikatzea borroka-tresna hobea den adierazgarri.

Batistaren garaira artean kolonizazio horrek goranzko bidea egin zuen, azkeneko amerikarrek putetxe, ustel- eriaren baratze, aberatsen paradisu eta bertako txiroenen infernu bihurtuz. Miresgarria izan zen iraultzarekin zenbait- tek erakutsi zuen begi zolia.

**"Kubatarrek indigenen oinordeko direnaren sentimenduarekin bizi dira"**

Badakigu nola dauden Hego Amerikako herri denak, eta halatsu egongo zatekeen, gainontzean, Kuba ere. Zoritxarrez AEBek ere begi zolia izan zuten, justizia- ren ametsa blokeoa- rekin zigortuz. Beldurrak zer

eragiten duen, *compay!* Orain bi gerra dituzte: Miamiaren presioa eta belau- naldi berrien transmisioa. Garai txarrak ezagutu ez dituztenek, hobeak amets. Blokeoak turismoa beste aukerarik ez die utzi, horrek sistemari dakartzkion kontra- dikzio eta arrisku guztiek. Lotsagarria da herri baten potentzialak horrela muga- tzea. Gorroto dut beldurtien indarra.

**Berrigara**

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA  
Edu Mendibil  
ERREDAKZIOA  
Aintzane Irizar  
Irati Agirreazaldegí  
MAKETAZIOA  
Maitena Arana

PUBLIZITATEA  
Mireia Larrañaga  
KOLABORATZAILEAK  
Luis Mari Agirre  
Juan Martin Elexpuru  
Miguel Angel  
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA  
SS-50/91  
ISSN  
1130-6599  
TIRADA  
8.680 ale

**Goiena**  
Komunikazio Zehatzak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Bergarako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Elgetako  
Udala

# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko uztailaren 15a / 253. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

## Udal Liburutegiak 600 bazkide, 8.000 liburu eta 500 bideo eta DVD ditu

AINTZANE IRIZAR

Uztailaren 29tik irailaren 5era itxita egongo da Liburutegia. San Joanak ezker, berriz, goizez zabaltzen dute. Oporren atarian, Udal Liburutegiaren martxaren berri jakin nahi izan dugu. Horretarako, Lierni Legorburu arduradunarekin egon gara.

Liburuak, bideoak, DVDak, aldizkariak, Internet... Eskaintza zabala dauka Antzuolako Udal Liburutegiak.

Guztira, 600 bat bazkide ditu; erabiltzaileak, hala ere, gutxiago dira, gehienak, umeak eta gazte-  
txoak. Bestalde, geroago eta gehiago dira liburutegira joaten diren erretiratuak.

### 8.000 LIBURU ETA 500 BIDEO

Guztira, 8.000 liburu eta 500 bideo eta DVD inguru dituzte. Erabiltzaile gehienak umeak direnez, bideoak eta DVDak dira jendeak gehien hartzen dituenak. Ordenadorean jolaserako erabil daitezkeen CD-ROMak ere badaude.

Bestalde, aipatzekoa da bada-goela DVD sorta oso interesgarria: Jesus Etxeberrriak urteetan grabatutako 60 DVD, hain zuzen ere.



Urtean zehar ipuin kontalarien saio ugari antolatzen dituzte, umeendako.

### IPUIN KONTAKIZUNAK

Urtean zehar, irakurtzeko zale-tasuna bultzatzeko, ipuin kontakizun ugari antolatzen dituzte liburutegiko arduradunek. Umeendako izaten dira horiek. Bestalde, Patxiko Txerren ipuingin-

tza sariketa ere antolatzen dute; Herri Ikastetxeko neska-mutiko guztiek parte hartzen dute.

### TXARTEL KOMUNA

Gabonetan jarri zuten martxan txartel komuna. Horrekin bate-

ra, Euskadiko Liburutegien Sare Nazionala eratu dute, eta [www.euskadi.net/katalogobateratua](http://www.euskadi.net/katalogobateratua) web gunean, sare nazional horretan dauden liburutegietan zer dagoen kontsultatzeko aukera daukagu.

## HERRITARREN HITZA / Iraia Gabilondo • Ikaslea

### Kontratu soziala

Gizakiaren joera naturala taldeetan bizitzea dela esan daiteke, erakutsi diguten historiaren arabera, behintzat. Badira hainbat teoria, hasiera batean gizarte perfektu bat zegoela adierazten dutenak, beraz, akatsik gabeko gizarte hori noizbait izan bada ere, guk ezagutzen dugun egoerara iristeko aldaketa sakonak jasan ditu gizarteak.

Filosofo ezagun batek, Rousseau-k, hain zuzen ere, *Kontratu soziala* idatzi zuen. Honen ustez, gizakia bere bakardadean ona da, baina gizarteratzean bere alderdi ez

horren onak erakusten ditu, gizartearen oreka hautsiz.

Rousseau-k beharrezko ikusten du gizakiak bere eskubide batzuei uko egitea, hauek beste pertsona edo erakundeen esku utziz, segurtasuna eta bakea gizartearen ziurtatzearen truke; horixe izango da Kontratu soziala. Karl Marx-ek egoera honetara heltzearen errua jabetza pribatuari botatzen dio.



"Nor bere eskubideen jabe izateko garaia iritsi da"

Aipaturiko kasuaren ondorio nagusia nagusitasunaren sorrera izango da. Zer da nagusitasuna? Nagusi denaren lehentasuna edo aginpidea, hau da, beste guztiekiko abantaila. Rousseau-ren kasuan gizartearen eskubideak jaso dituen nagusitasun egoeran aurkituko da, eta ez du gizartearen antolatzerakoan zertan kontuan hartu gizartearen ideia,

iritzi edo ekintzak. Absolutismoa edo diktadura adibidez. Egun bizirik dirauen fenomeno dugu nagusitasuna, nahiz eta pertsona eta erakunde batzuen gain egon. Banaketa honek gizartearen antolatzearen ikuspegi gehiago ematen dizkigu, nahiz eta gizarte osoaren iritzi eta ekintza guztiak ez hartu kontuan.

Beraz, Rousseau-ren kontratua apurtzeko ordua iritsi dela uste dut, ez baita inondik inora ere gure eskubideen truk egin ziguten zina bete, eta nor bere eskubideen jabe izateko garaia da.

## LABUR

### Aiherrako ordezkariekin bazkaria zapatuan

Herriko jaiak direla eta, Beltzuntze elkarteko eta Herriko Etxeko ordezkariak etorriko dira bihar, zapatua, Aiherratik. Udaleko arduradunekin batera, bazkaria egingo dute, eta aurrerantzean izango duten harremanaren gainean jardungo dute bazkari horretan. Urriaren beteko da urtebete Lasterkaldia antolatuzutela, eta era horretako ekimenak antolatzen jarraitzeko asmoa erakutsi zuten orduan antolatzaile guztiek.

### Miren Urriategik lortu du kale garbitzaile postua

Egubakoitz arratsaldean jakin genuen epaimahaiaren erabakia; azkenean, Miren Urriategi antzuolarrak lortu du kale garbitzaile postua. Hainbat azterketa teoriko eta praktiko egin behar izan dituzte lanpostu horretara aurkeztu diren guztiek. Aurreko astean, berriz, elkar-riketa egin zieten. Azkenean, Miren izango dugu postu horretan. Azkeneko hila beteotan udaltzain lanetaz dabil, Jesus Etxeberrria udaltzainaren baja betetzen.

### AKEk batzar orokorra egingo du uztailaren 21ean

Datorren asteko eguenean, uztailak 21, batzar orokorra egingo dute Antzuola Kirol Elkarteko kideek. Udaletxean izango da batzarra, 19:30ean. Hantxe, bukatu berri den eta datorren denboraldien gainean jardungo dute.

Aurreko martitzenean, berriz, erregional mailako futbol jokalariek batzarra izan zuten. Hantxe, datorren denboraldia prestatzeari ekin zioten. Zuzendaritzako kideekin digutenez, nesken eta infantilen taldeak osatzea bakarrik geratzen zaie.

GIZARTEA

# Saharako zortzi urteko neskatila bat etorri da uda pasatzera

A.I.

Mahyuba izeneko zortzi urteko neskatila bi hilabete pasatu du Antzuolan. Kanpamenduetatik irteten den lehenengo aldia da Mahyubarendako. Astelehenean iritsi zen eta herriko familia batekin pasatu du uda: Lurdes, Migel Angel eta Mairirekin, hain zuzen ere.

Azkeneko urteotan geroago eta gehiago dira Euskal Herrira uda pasatzera etortzen diren ume sahararrak; aurten lehenengo aldiz, Antzuolan ere Saharako ume bat izango dugu. Mahyuba da bera, zortzi urteko neskatila.

*Mahyuba,  
Debagoienara etorri  
diren besteak bezala,  
Nubi elkartearen  
bitartez etorri da*

Astelehenean iritsi zen Antzuolara, eta irailera egongo da hementxe. Tindouf-eko errefuxiatu kanpamenduetan bizi da Mahyuba.

Lurdes, Migel Angel eta Mairiren etxera etorri da. Pixkana herrira moldatzen doa; dagoeneko martitzenean udalekueta-

ra joan zen, herriko umeekin.

Mahyubaren izeba bat Euskal Herrian bizi da, Lizartzan, hain zuzen ere. Hura bisitatzeko aukera ere izango du, hortaz.

#### NUBI ELKARTEAREN BITARTEZ

Mahyuba, Debagoienara etorri diren gainerako umeak bezala, Nubi elkartearen bitartez etorri da gurera.

Antzuolako Udalak ere parte hartu du ekimen honetan. Garraioa ordaintzeko diru laguntza eman du, eta antolatuko dituzten ekitaldietan ere parte hartuko du.

Nubi elkartearen helburua da, urtetik urtera, umeok etxean hartzeko familia gehiago topatzea.



Mahyuba Lurdes, Mairi eta auzoko lagunekin.

A.I.



## Angiola finalera iritsi da, baina ez dute partidua jokatu

Astelehenean Tito's Getokuak taldeari 3-2 irabazita, Ipintzako finalerako txartela lortu zuen Angiola taldeak. Gaur, egubakoitza, jokatzekoak ziren finaleko partidua; baina, herriko jaiak direnez, Angiolakoek antolatzaileei eskatu zieten eguna aldatzeko. Aldatzeko aukerarik ez zegoenez, antzularrek erabaki zuten finala ez jokatzera. Horrela, final erdietako bi partidua galdu zituzten taldeek (Tito's Getokuak eta Hotel Ormazabal) elkarren aurka jokatu eta irabazlea zen Angiolaren tokian jokatzekoa. Finalera iritsi den beste taldea da Elgetako Fo-fo-fo. /A.I.

## LABUR

### Aitor Mendizabalek Itziarko Lau t'erdiko finala jokatu du gaur, egubakoitza

Martitzenean, uztailak 12, Itziarko Lau t'erdiko txapelketako finalerako txartela lortu zuen Aitor Mendizabalek. 22-14 irabazi zion Escudero andoaindarrari. Gaur, egubakoitza, 22:00etan, jokatu du finala, Iturriotz nafarraren aurka.

### Gurutz Larrea Luxenburgoko lasterketa baten egon da, Gipuzkoako selekzioarekin

Gurutz Larrea txirrindulariak Luxenburgon lasterketa baten parte hartu du, Gipuzkoako selekzioarekin. Zorte txarra izan zuen; zapatuan, lasterketatik kanpo geratu zen, polizia batek okerreko bidetik bidali zituelako Larrea bera eta beste bi gipuzkoar.

# Surpe Taberna



Jai zoriontsuak antzuolar guztioi!

Herriko plaza • 20577 ANTZUOLA • Tel.: 943 76 60 00



Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua  
ANTZUOLA.  
Tel. 943 76 60 89  
Faxa: 943 76 60 14

### ZAHAR BERRITZEAK:

Fatxadak  
Bainugela eta sukaldea  
Lokal komertzialak  
Teilatuak

**Eta orain....  
GREMIOEN  
KOORDINAZIOA**

# II Harizki

SUKALDEKO ALTZARIAK

**MUEBLES  
IGEA**

Sukalderako eta  
bainurako altzariak  
Altzari rustikoetan  
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2005eko uztailaren 15a / 235. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldeggi • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

## Domekan 150 ziklista Mendiko Lasterketan

IRATI AGIRREAZALDEGI

Euskadiko Mendiko Txirrindulari Lasterketa jokatu da domekan Elgetatik abiatu eta bertan amaituz. Probak aurten badu berrikuntzarik: kanpoko talde gehiago ekarriko dituzte. Lehia polita egongo da, beraz, hemengo eta kanpoko txirrindularien artean.

Guztira, elite mailako eta 23 urtez azpiko 150 txirrindulari inguru izango dira Elgetan.

Hego Euskal Herrian maila honetan jarduten duten talde guztietako ordezkariak etorriko dira Elgetara. Hauetaz gain, Iparraldeko Entente Suf Gescone eta beste bi txirrindulari talde izango dira proban eta baliteke Italiako talde batek ere parte hartzea. Gropusa, Valentziako Unibertsitate Politeknikoa, Catalunya-Angel Mir, Cai-Zaragoza eta Camargo-Roper Espainiako taldeak ere etorriko dira. Herriko ordezkaria, berriz, Xabier Arantzeta izango da.

Kanpoko talde gehiago ekaritzea izan da probaren aurten berrikuntza. "Emakumeen Birako etaparik ez da aurten Elgetan amaitu, beraz, txirrindularitzazaleak gustura lagatzeko proba hau indartzeko ahalegina egin dugu", esan digu Emilio Mandaluniz antolatzaileak.

### ASENTZIOKO GAINA BI ALDIZ

Goizeko hamarretan Elgetan abiatu eta besteak beste Areitio-



GOIENKARIA

Txirrindulariek 124 kilometroko ibilbidea egingo dute domekan.

*Elgeta da lasterketa ikusteko lekurik egokiena; irteera eta helmugaz gain, bi aldiz pasatuko dira*

ko gaina eta Asentzio bi aldiz igo ostean, 13:00ak inguruan Lehen txirrindularia helmugan izango dela aurreikusitako dute. Guztira, 124

kilometroko ibilbidea egingo dute txirrindulariek Gipuzkoako eta Bizkaiko lurretan.

Antolatzaileen esanetan, "lasterketa ikusteko toki egokiena Elgeta bera da. Irteera eta helmuga bertan egoteaz gain, 11:30ean eta 12:20 inguruan herritik pasatuko dira txirrindulariak".

### INFORMAZIOA BOZGORAILUETATIK

Bestalde, lasterketa abian den bitartean plazako bozgorailuetatik karreraren nondik norakoen berri emango dute.

## HIRIGINTZA

### Maalan obrak hasiko dira datorren astean

I.A.

Udaletik jakinarazi digutenez, datorren astean hasiko dira Maala ingurua egokitzeko lanetan Aikia SL enpresakoak beste hainbat langilearen laguntzaz. Orain ekin eta abenduaren lehen egunerako amaitzea da asmoa.

Maalan parke berria egiteak herritarrek erabiltzeko gune bat berreskuratzea ekarriko du. Izan ere, Espaloiara doan behin-behineko bidea hobetuko dute bidearen alde banatan lorontziak eta bankuak ipiniz. Intxorta elkarrearen aldamenetik ere oinezkoendako bidea egingo dute parkea San Roke kalearekin lotzeko.

### ERMITA PARKEAN

Maalan, Intxorta elkarrearen atzeko aldean, plazatxo bat egingo dute eta bertan bankuak egingo dira. Berde gune bat ere eratuiko da eta umeendako ziburuak eta iturria ere ipiniko dituzte. Bestalde, parkeari izena ematen dioten amabirjinaren omenez ermita bat ere eraikiko dute. Parke guztia argizatuta egongo da.

Hirigintza proiektu garrantzitsua da Maalako parke hau, eta 320.275 euroko kostua izango du. Gipuzkoako Foru Aldundiak 145.000 euroko laguntza emango dio Udalari.

Beraz, urtea amaitzerako jolasleku berria izango da herrian.



Plaza eta Espaloiaren arteko gunean egingo dute parkea.



RECYDE, S.A.

Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa  
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10  
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es



Enpresa  
Erregistratua  
ER-0182/2/95  
ISO 9002  
QS 9000  
ISO/TS 16949

Aperribay, s.l.

Marmoldegi  
eta granitoak

Pagatza indus. z/g.  
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA

## LABUR

### Joaquin Rodriguez eskoriatzarraren 18 margolan ikusgai hilabete osoan Espaloian

Uztailaren 30era bitartean Joaquin Rodriguez eskoriatzarraren 18 margolan egongo dira ikusgai Espaloian. Lan hauen oinarritako materiala kartoia da; hau dela eta, artistak erakusketa honi *Kartoiak* izena eman dio. Koadroak hiru seriedunak dira eta artistaren esanetan, margotzen duenak eta ikusten duenak koadroaren interpretazio desberdinak egiten ditu, interpretazio hauek pertsona bakoitzak barnean duenaren isla dira. Margo hauetan pertsona bakoitzak eman nahi die garrantzia, eta badira koadro batzuk bertikalean zein horizontalean jar daitezkeenak.

INDUSTRIALDEA

# Pagatzako industrialdea irailean inauguratuko dute, berrituta

I.A.  
Pagatzako industrialdean, Pagatza eta industria-gune berriaren artean aisialdi-gune bat ipini dute. Horrekin eta beste hainbat berrikuntzarekin industrialdea irailean inauguratzeko asmoa dutela esan digute Udalean.

Aisialdi-gune berriari jolastokia eta lorategia daude. Bertan, bi mahai, bankuak, iturria eta umeendako ziburuak ipini dituzte.

Parkeaz gain, industrialdean barrera oinezkoendako ibilbide-

ak gertatu dituzte, eta baita atse- den hartzeko bankuak ipini ere.

Patxi Basauri alkateak esan digunez, "industrialde berria jende askok erabiltzeko moduan ipini nahi izan dugu bai egunez eta baita gauzez ere, horretarako argiteria egokia jarri baitugu".


Industrialdea irailean inauguratzeko asmoa dute, behin instalazio guztiak amaituta. "Industrialde modernoa da, eta gainera, denok konpartitzeko aisialdi-gune bat izango duena".

Bestalde udaletik jakinarazi digute industrialdearen inguruan dauden zuhaitzak, loreak

eta landareak katalogatzea aurreikusi dutela.

**ARALAR HASERRE**

Aralarrek Hezkuntza batzordean bere haserre adierazi zuen, batzordean eztabaidatu gabe ziburuak ipini dituztelako industrialdean. "Industrialdea ez da ziburuak jartzeko eta umeak jolasteko toki aproposena. Iaz arazo dezente egon zen ziburuen mantentze-lanak enpresa espezializatu batek egiteko, dirua izan zen aitzakia". Aralar koeu ustez, "hobe litzateke dauden ziburuak ondo zaintzea".



Pagatzaren eta industrialdeko alde berriaren artean daude ziburuak.



## Fo-fo-fo, Ipintzako txapelketako finalerako sailkatuta

Bergaran jokatzeko den Ipintzako areto futbol txapelketako finalerako sailkatu da Fo-fo-fo taldea. Finalerdia 2-1 irabazi zuten elgetarrek Hotel Ormazabal taldearen aurka, eta horrela, finalerako txartela eskuratu zuten. Hirugarren urtea dute Fo-fo-fo taldekoek finalean, eta behin irabazi dute. Finala egubakoitzean, hilaren 15ean, jokatu dute, 20:00etan, Ipintzan./I.A.

**BASERRIAK**

# Baserri bideen garbiketa auzolanean

I.A.

Baserriarren batzordeak erabakita, baserri bideetako bazterrak garbituko dituzte uztailaren eta irailean.

Bide bazterrak garbitzeaz Udala arduratuko da. Uztailaren Asurtza eta Aixolako bideak garbituko dituzte eta irailean gaintzekoak.

Bestalde, aurten garbituko dituzte lehen aldiz baserri bide-arekak. Uztailaren Aixolara doan bidekoak eta irailean besteak.

Garbiketarako tresnak Udalak ipiniko ditu eta bertako hainbat langilek ere jardungo dute garbiketa lanetan. Hala ere, baserriarren eta baserri auzoetan lurrak dituzten jabeen laguntza

eskatu dute, bideen garbiketa auzolanean egin ahal izateko.

**AIXOLAKO BIDEA**

Uztailaren 23an, zapatua, egun osoz jardungo dute Aixolara doan bidea garbitzen. Horretarako hitzordua ipini dute lanerako prest daudenak elkar daitezten. Goizeko zortzietan Urbedeinkatun azaldu beharko dute nahi dutenek.

Udaletik esan digute oso garrantzitsua dela arekak eta bide bazterrak garbitzea. Izan ere, asiak, belarrak eta zikina areketan pilatuz gero, ura ez litzateke bertatik igaroko behar den moduan; horrela, ura bidera irten eta baserrietara doazen pistak hondatu egingo lirateke.

**HERRITARREN HITZA / Igor Arizmendiarieta · Irakaslea**

## Xentimo bat merkeagoa

Beste egunean irratia entzuten nengoela gure gizar-arte gertatzen den fenomeno bitxi hau plazaratu zuten eztabaidara. Kontsumituz nola aurreztu genezake, zen gaia. Askotan nahi izaten dugu dirua aurreztu gure bizi kalitatea ezertan aldatu gabe. Ez dakigu nondik gutxitu ditzakegun gastuak eta ia gehienetan janarian egiten ditugu aurrekontu murrizpenak. Supermerkatu edo denda-tara joaten gara, eta han ibiltzen gara xentimoari begiratzen, produktu marka bat bestea baino xentimo batzuk merkeagoa dela eta hori

erosten dugu azkenean. Edo okindegi bateko ogia beste batean baino bost xentimo merkeagoa dela eta bertan erosten dugu ogia. Berdina taberna batean edo bestean kafea hartzerakoan.

Gure etorkizuna horrelako erabakietan doalakoan, ez gara konturatzen azkenean huskeria zentzugabe bat dela aurrezten duguna.

Dirua aurreztu nahi badugu, beste planteamendu bat



"Dirua aurreztu nahi dugu bizi kalitatea aldatu gabe"

egin behar diogu gure buruari. Benetan diru dezente gastatzen dugun gauzetan ipini beharko genuke arreta gehiago.

Gaur egun, diru zulo izugarria bilakatu den telefono mugikorren erabilpen axolagabea da adibide argiena.

Gastu hori kontrolatzeak ez du zaila izan behar. Familia batek ere dezente aurreztu dezake, oporrak ongi antolatuz, bere

etxe edo autoaren aseguria egokiro aukeratuz; diru dezente supermerkatuko gurdi batean aurreztu genezakeenaren aurrean. Berdina auto edo etxe bat erosterakoan, diru dezente gutxiago xahutu genezake aukera egokiak egingo bagenu kreditu eta abarretan. Baina badirudi honek nahiko buruhauste eragiten digula, eta azken finean hortxe ibiltzen gara supermerkatuan eta dendatan, eguneroko bizitzan hartu behar genituzkeen buruhauste zentzugabeak hartzen. Zein esne hartuko dugu gaur hau edo bestea? Hau xentimo bat merkeagoa da...

**LABUR**

## Tourra pantaila handian Espaloian asteburuan

Tourreko Pirinioetako etapak bertatik bertara ikusteko aukerarik ez dutenendako pantaila handian emango dituzte asteburuan Espaloian. Gaur izan da lehen emanaldia eta bihar eta etzi ere izango da txirrindulariak lanean ikusteko aukerarik. Zapatuko etapan Agde-Ax-3 Domaines ibilbidea egingo dute ziklistek; 220,5 kilometro, hain zuzen ere. Domekako ibilbideak 205,5 kilometro ditu: Lézat-sur-Lèze-Saint-Lary Soulan (Pla d'Adet).

# Oñati

OÑATI / Egubakoitza / 2005eko uztailaren 15a / 15. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oihana Elortza • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 71 29 77 • Posta elektronikoa: oinati@goiena.com • Lege gordailua: SS482/05

## Kirol eskaintza zabala prestatu dute uztailerako eta abuzturako

OIHANA ELORTZA

Aste honetan hasi dute piraguismo ikastaroa eta datorren astean izango du segida. Olate auzoko Miruerrekan egingo dute. Bergarako Beti-Busti taldeak emango du ikastaroa. Igeriketa, tenisa, waterpolo eta aqua-gym ere eskainiko dute uztaile eta abuztuan.

Olate auzoko Miruerrekan egingo dute piraguismo ikastaroa. Atzo, eguna, hasi zuten eta datorren astean izango du jarraipena. Uztailearen 22a arte izango da piraguismo ikastaroa.

Beste urte batzuetan ere antolatu izan dute piraguismo ikastaroa, eta, jendearen erantzuna ikusita, aurtengo udan ere errepikatzea pentsatu du Kirol Sailak. 16 urtetik gorakoendako da piraguismo ikastaroa, plazak mugatuak dira eta kiroldegian bertan jaso daiteke behar den informazio guztia. Bergarako Beti-Busti elkarteak emango du.

### UDA 05 KANPAINA

Aurtengo udarako ere kirol kanpaina berezia antolatu du Kirol Sailak. Uztaileko eta abuztu-

rako antolatu ditu ekintzak eta lau txandatan egingo dituzte: uztailean bi txanda eta beste bi abuztuan. Uztaileko bigarren txandarako prestatutako kirol ekintzak egiten ari dira orain. Hilaren 22an amaituko da bigarren txanda.

### ABUZTURAKO KIROL AUKERAK

Abuztuko bi txandetan ere kirol eskaintza zabala jarri dute aukeratzeko: tenisa, mini tenisa, igeriketa, badminton, waterpolo eta aquagim egiteko aukera dago abuztuan, besteak beste. Hala, 2tik 12ra bitartean da lehenengo txanda eta 16tik 26ra bigarrena. Izena emateko epea dagoeneko zabalik dago eta interesa duenak edo informazio gehiago behar duenak Zubikoa kiroldegira joan besterik ez du.

*Piraguismoa,  
tenisa, waterpolo,  
aqua-gym, igeriketa  
eta badminton,  
besteak beste*



Miruerrekan emango du ikastaroa Beti-Busti elkarteak.

BETI-BUSTI

## LABUR

### Belatxara zazpi asterako itxiko dute astelehenean

Datorren astelehenean, uztailak 18, itxiko dute Belatxara gasolindegia. Konponketa lanak egin behar dituztelako itxiko dute. Zazpi astean gutxienez egongo da itxita. Gasolina gordetzeko lur azpiko upelak eta lurzorua bera berriak egin behar dituzte. Lurzoru berriarekin, egon daitezkeen gasolina filtrazioak ekidin nahi dituzte. Gasolindegira sartzeko eta irtekeko noranzkoak ere alda ditzakete. Denda eta auto garbigailua ez dituzte berrituko.

### Trianako jaiak hasiko ditu gaur Astotrustok

Astotrustok emango die hasiera, gaur, egubakoitza, Trianako jaiak. 19:00etan etorriko da eta txistulari, erraldoi eta txorimaloak izango ditu lagun. Gauean, Kaixo taldearen erromeria egongo da. Zapatuan, arku tiroaren erakustaldia, auzoko poteoa, mus txapelketa eta sukalde ikastaroa egingo dituzte, besteak beste. Domekarako, meza auzo bazkaria, txotxongiloa eta erromeria antolatu dute. Dantzaldiaren atsedendian egingo dute sarien zozketa.


### Folklore mexikarra gaur, eta stoner eta rock doinuak bihar

Gaur, egubakoitza, Mexikoko San Luis Potosiko Ballet Folklorikoak ikuskizuna emango du Santa Ana aretoan. 22:30ean hasiko da funtzioa eta sarrera doan da. 40 bat gaztek osatzen dute Mexikoko talde hori.

Bestetik, Gaztelekuan bi taldek joko dute bihar, zapatua. Bartzelonako Robot eta Errenterriako Boogie Van taldeak gonbidatu dituzte. Stoner eta rock-and-roll musika egingo dute. Kontzertua 23:00etan hasiko da. Sarrera, 4 euro.

### Oñatiko argazkien liburua

Oñati. Irudiak izeneko argazki liburu bat argitaratu dute. Gaur egungo Oñati nolakoa den erakusten duten 240 bat argazki ageri dira liburu horretan: Oñatiko natura, jendea, enpresak, jaiak eta herria bera erretratatzeko dituzten argazkiak dira. Martitzenean, 19:00etan, egingo dute liburuaren aurkezpena kultura etxean eta herriko liburu dendetan egongo da salgai 40 eurotan. Liburuko argazki batzuk ikusgai daude kultura etxeko erakusketan. / O.E.



# SANTAMAIÑAK 2005



## Uztailak 11tik 15era

•AITONETAN: Tute, mus, briska, toka, rana, bolo, billar TXAPELKETAK jokatuko dira

## Uztailak 14, osteguna

•12:00etan. : Etxafleroak eta kanpai hotsa jaiak adierazteko

## Uztailak 15, ostirala

- 10:30ean: XVII. Ibilaldi Neurtua jubilatuentzat
- 16:30ean: Aitonetan: Tute, mus, briska, toka, rana, bolo, billar FINALAK jokatuko dira.
- Ondoren, Aitonetan sari banaketa
- 18:30ean Kukañak.
- 19:30ean XIII. Boccia txapelketa
- Ordu berean, PETRIKOL dastaketa auzoko tabernetan

## Uztailak 16, larunbata

- 16:00etan TXIRRINDULARITZA lasterketa, XIV. Santamaiña saria
- 21:00etatik goizaldera arte DISKO FESTA Matxiategin

## Uztailak 17, igandea

- 9:00etan Herriko txistularien kalejira
- 10:30ean Bergarako Udal Musika Bandaren kalejira
- 11:30ean Meza Nagusia Santamaiñako elizan
- 12:30ean Udal Musika Bandaren kontzertua Fraiskoazuri enparantzan

## Uztailak 18, astelehena, Santamaiña eguna

- 19:00etan Herri Meza Santamaiñako elizan Udal Korporazioarekin
- Ondoren, Aritzeta abesbatzaren kontzertua

## Ondo ibili Santamaiñetan!

## Sokamuturra

### Eduardo Arrillagaren argazki erakusketa

Bergarako Aroztegi jauregian / 2005eko uztailaren 1etik 24ra

Iñaki Azkune eta Juan Luis  
Bikuñaren hitzaldia  
**Sokamuturra**  
Uztailaren 15ean, ostirala,  
20:00etan

Orduetgia  
Astegunak: 18:30-20:30  
Larunbatak: 12:00-14:00 / 18:30-20:30  
Igandeak: 18:30-20:30



AROTEGI  
JAUREGIA



BERGARAKO  
UDALA

**Toki-Ona bodegoia**

Matxiategi 1

**Itziar mertzeria**

Matxiategi 1

**Saloki mertzeria**

Matxiategi 2

**Herran**

Matxiategi 3-4

**Gorosti loradenda**

Matxiategi 3

**Antia harategia**

Matxiategi 8

**Mizpildi okintegia**

Matxiategi 1

**Olabe okindegia**

Matxiategi 4

**Estella ortopedia**

Matxiategi 5

**Kayak taberna**

Matxiategi 3

**Eladio oinetakoak**

Matxiategi 2

**Onda supermerkatua**

Matxiategi 7

**Juana Elgetarra mertzeria**

Zubieta 38

**Yon Bilbao elektrizitatea**

Fleming 11

**Ikasle liburudenda**

Fleming 11

**Etxeberria Esteban Estankoa**

Fleming 7

**Aralar taberna**

Matxiategi 3

**Bergara fisioterapia zentroa**

Matxiategi 5

**Belire eskulanak**

Fleming 11

**Ondo pasau Santamainetan!**